

Txorimaloen istorio bat



Lehen Hezkuntzako 3. zikloa eta Bigarren hezkuntza | 8 - 16 saio

Idazketa

Nortasuna

Ikus kultura

Lurraldea

Egunerokoa

Mitologia

Gure irudiari eta antzekotasunari istorioak eraikitzen dizkiogu, denborarekin lekuko gisa, konturatu gabe istorio hauek beste batzuen hondakinekin eraikita daude, horietako asko etxeko bizitzakoak dira. Istorioek puzzle handi bat osatzen dute, non, egin beharreko bide eta bidebanatze asko sortzen diren. Horrela kanpoko eta barruko mundu bat birformulatzen dugu, bertan, gu ikusleak eta interpreteak gara aldi berean. Ikerketa kolektibo batetik abiatuta, gure txorimaloak sortuko ditugu, gai horiei guztiei erantzuteko metafora gisa.

Helburuak

- Txuspo Poyoren artelan eta prozesuetara hurbiltzea
- Norbanakoaren eraikuntzari eta ingurunearekiko harremanari buruz hausnarketarako gune bat sortzea. Horretarako, herriko kultura, literarioa eta zinematografikoa erreferente bezala hartu.
- Oroimenari, abandonatuari edo hondakinari balioa ematea, lehendik daukaguna berriz testuinguruan kokatzeko baliabide gisa.
- Besteen aurrean gure berezitasuna baieztatzea gure inperfekzioetatik, gure baitan dagoen munstroa edertasun berri bat bezala ulertuz.

Aipamenak

Frankenstein (1818) - Marry Shelley <https://www.youtube.com/watch?v=-zJqdHFmFgl>

Frankenstein (1931) pelikularen eszena <https://www.youtube.com/watch?v=fvTw-OKmQBI>

El jovencito frankenstein- <https://www.youtube.com/watch?v=Y8v2YNOdwnM>

Nafarroako inauteriak <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/inauteriak/ar-29368/>

Ziripot: <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/ziripot/ar-147437/>

El mago de Oz: https://www.edukations.com/wp-content/uploads/2019/01/El_Mago_de_Oz_Ilustrado_Lyman_Frank.pdf

<https://www.love4musicals.com/2015/08/07/the-wizard-of-oz/>

Thriller - Michael Jackson. <https://www.youtube.com/watch?v=sOnqjkJTMaA>

Beste liburu batzuk: "La belleza imperfecta" Carlos Reyero, "Venus barbuda y el eslabón perdido" Pilar Pedraza.

Proposamenaren garapena

Aurkezpena

1. Txorimaloen ideia sartuko dugu irakasleak alde aurretik hautatutako irudiak irakurrita. Txorimaloa eskultorikoa eta piktorikoa da, femeninoa eta maskulinoa edo biak batera. Bere janzkeran berritzailea da eta bere makillajea lotsagabea. Hauskorra da, baina aldi berean ausarta. Atsedetik gabeko jagole bat. Babeslea.

Txorimaloak jostun kaxoi bat du, beste objektu batzuen hondakinez egina dago, Frankenstein txiki bat edo Prometeo moderno da. Zinema edo literatura oso aholkulari onak izan daitezke gure barruan bizi den munstroa beste modu batean ikusteko.

2. Proposatutako erreferentzia batzuk ikusiko ditugu eta galdera hauek egingo dizkiogu geure buruari: Ezagutzen al ditugu txorimaloen beste adibide batzuk? (Filmak, ipuinak, sailak, liburuak, komikiak, familiaren albumeko irudiak, aldizkariak, abestiak, poesiak, antzezlanak, telebistako iragarkiak...). Guztion artean zerrenda bat egiten dugu. Aurkitu al dezakegu zerrenda horretan gorputz femenino, maskulino edo trans bat? Eta modaren historiaren mende dagoen bat? Eta gorputzik gabeko gorputz bat? (Adibidez, adimen artifizialaz) Zein testuingurutan erabiliko genuke bat eta zertarako? Zer eduki beharko luke "misio" hori bete ahal izateko? Gure buruaren zati batzuk "mailegatu" ahal bagenitu txorimalo berri bat egiteko, zein zati izango lirakeke?

3. Lau edo bost laguneko taldeetan, aurretiko eztabaida osa dezakeen ikerketa bat egiten dugu, tokiko folklore, sare sozial edo zinematik etorritako erreferenteak hartuz. Mapa bat sortzen dugu egindako ikerketa guztiarekin.

Esperimentazioa / Sorkuntza / Ikerketa

1. Egin dugun mapa eta ikerketatik abiatuta, istorio bat diseinatu edo idazten dugu, bertan, protagonista, egindako ikerketatik datozen ezaugarriak dituen txorimaloa da. Horretarako, proposamen hauek har ditzakegu kontuan:

- Iraganaren eta etorkizunaren denbora artean, edo naturaz gaindikoaren eta naturala den artean aurki daiteke.
- Taldeko pertsonen irudi eta antzera pentsa daiteke, haien fisikoaren, arropen, asmaketen eta akatsen elementuekin.

2. Gure pertsonaiari bolumena emango diogu. Eskultura edo karakterizazio bat izan daiteke, gure gorputza eraldatuz.

3. Instalatzeko leku bat bilatzen dugu. Edo gure gorputzak erabili baditugu, dantza-koreografia bat egingo dugu, non maskarak eta musika erabil ditzakegun, birziklatutako instrumentuekin.

Ondorioak eta lerro irekiak

1. Bai banaka, bai taldeka, txorimaloaren metaforak sortzen dituen gaiak jorratzen ditugu. Argazkien, testuen, diseinuen... PDF dossier txiki bat egingo dugu.

2. Egindako lanak aurkezten ditugu, gure klasean edo beste batean, ikusleen eta aurkeztutako proposamenen arteko eztabaida irekiz.

3. Egindako txorimalo batzuk baratze edo naturguneren batera eramaten ditugu, eta instalazioaren inguruan dantza, su eta festa erritual bat sortzen dugu.